

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2024ko irailaren 24ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

Erabakiak:

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 530/2024 Erabakia, irailaren 24a. Onespena ematea hutsak zuzentzeari Kontseiluaren uztailaren 2ko 389/2024 Erabakiaren bidez onetsitako eranskinetan.

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 531/2024 Erabakia, irailaren 24a. Onespena ematea Etxajaun XXI SL enpresari adjudikatzeari Arabako Foru Aldundiaren bulego teknikoen eraikineren barruko fatxadetako kanpoko arotzeria ordezteko kontratua. Zenbatekoa 188.639,00 euro da, BEZa barne, eta gauzatze epea hiru hilabete.

Foru Gobernu Kontseiluaren 532/2024 Erabakia, irailaren 24a. Onespena ematea Auto Electricidad Ondo SA enpresari adjudikatzeari ingurumen inpaktu txikiko ibilgailuak hornitzeko kontratuaren 1. sorta, 139.193,03 euroan, BEZa barne.

Foru Gobernu Kontseiluaren 533/2024 Erabakia, irailaren 24a. Onespena ematea dirulaguntza bat emateari Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari 2024ko enplegu proiektuak garatzeko.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 534/2024 Erabakia, irailaren 24a. Onespena ematea M_T03/2024/0000000016 kreditu transferentziaren espedienteari, 7.000,00 euroko zenbatekoan, funtsez hornitzeko "Lanabes: euskara eremu sozioekonomikoan" partida, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailak eta Nekazaritza Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 535/2024 Erabakia, irailaren 24a. Onespena ematea Vitoria-Gasteizko 7 poligonoko 110 lurzatiaren erreserba kontratuari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 536/2024 Erabakia, irailaren 24a. Onespena ematea aurrekontua aldatzeko zenbait espedienteri, funtsez hornitzeko "Araba Innova-Digitaliza: enpresak 2024" eta "Araba Innova-Digitaliza: elkarreak 2024" partidak, Araban berrikuntza eta digitalizazioa sustatzeko 2024ko ekitaldiko laguntza deialdia ebazteko (Araba Innova-Digitaliza), Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 537/2024 Erabakia, irailaren 24a. Onespena ematea aurrekontua aldatzeko zenbait espedienteri, funtsez hornitzeko "Igeriketan ikasteko garraioa 2024-2025" partida 2025ean, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailak hala eskatuta.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 538/2024 Erabakia, irailaren 24a. Onespena ematea zigorra ezartzeari kontratua ez betetzeagatik (50/2019 esp.).

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 539/2024 Erabakia, irailaren 24a. Onespena ematea hitzarmen bat izenpetzeari Valdepaderna de Moreda Ureztatzaileen Elkarrekin, Gorrebusto, Labraza eta Moreda Araba inguruan ureztaketa hobetzeko proiektua gauzatzeari dagokionez, bai eta proiektu horrek Arabako Lurralde Historikoan eragindako ondasun eta eskubideen hasierako zerrendari ere.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 540/2024 Erabakia, irailaren 24a. Onespena ematea Oficina Técnica Demontes SLUri adjudikatzeari Arabako Lurralde Historikoan baso suteetarako prebentziozko baso tratamenduen kontratua, gehienez ere 500.000,00 euroan, BEZa barne, eta urtebeteko iraupenarekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 541/2024 Erabakia, irailaren 24a. Onespena ematea Kontseilua-ren abenduaren 19ko 852/2023 Erabakiaren bidez onetsitako 2024ko ekitaldirako landa bideetarako laguntzen deialdiaren bigarren ebazpenari.